

LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO ERRONKA

Aholkularitza sektoreak egindako bideaz eta etorriko denaz hausnartu du Tolosan

 **HIZKUNTZA** / Asier Aiestaran

Esna gauden orduen erdia baino gehiago lanpostuan igarotzen baditugu, argi dago lan munduan euskaraz jarduteko aukera izateak garrantzi handia duela gizartearen euskalduntze prozesuan. Horretan dabil aspalditik aholkularitza sektorea. Orain arte egindako lana eta etorkizuneko erronkak aztertu dituzte Tolosan.

Ekainaren 13an egin zen Tolosa-ko Kultur Etxean “Lan eta bizi euskaraz. Eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko estrategia berriak” udako ikastaroa. Euskarak gaur egun lan munduan hartzen duen lekua abiapuntu hartuta, etorkizunean izan beharko lukeena irudikatu zuten eta horretarako jarraitu beharreko ildo nagusiak aztertu zituzten hainbat ikuspegi eta arlotatik.

Lege eta arauen arloa, sortzaileena, langile borrokari dagokiona... Hainbat eragilek hartu zuten hitza Tolosako

ikastaroan, baina guk aholkularien lana eta egoera nabarmendu nahi izan ditugu zenbaki honetan, euren lana ez delako oso ezaguna eta beren ikuspegiak gutxitan hartzen duelako euskararen inguruko eztabaiden erdigunea.

Enpresa, administrazio zein erakundeetan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta zerbitzuak eskaintzen dituzte aholkularitza erakundeek, nahiz eta gaur egun zerbitzu horiek gero eta anitzagoak diren. Aitziber Salaberria (Elhuyar), Eider Iturricastillo (Artez), Txarles Ranero (Ahize) eta Elias Zumalde (Emun) izan ziren “Lan mundua euskalduntzeko egungo mekanismoak eta etorkizuneko erronkak” gaiaren inguru-

ruan hausnarketa egin zuten sektoreko lau ordezkariak.

BAT-BATEKOTIK PLANIFIKAZIOA

Hitza hartzen lehena Aitziber Salaberria izan zen, eta sarrera moduan aholkularitza zerbitzuek azken hamarkadetan egindako bidea errepasatu zuen, lan munduak euskararen normalizazioan duen garrantzia azpimarratzearekin batera. «Egunak dituen orduetara erreparatzen badiegu, esna gauden erdiak edo gehiago lanean ematen ditugu. Horrek erakusten du lanak zer pisu duen gure bizitzan. Horregatik, euskaraz bizi nahi badugu, lana euskaraz egiteko aukera izan behar dugu. Arlo estrategikoa da, beraz».

Salaberriak gogoratu zenez, enpresen jarduna euskalduntzeko beharra ez da gauza berria. «Aspalditik datorren hausnarketa da, aspaldikoak dira arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko egindako saiakerak. Non hasi zen? Nola? Hau garai bateko borondate, indar eta gogoari esker hasi zen. Gehienetan, planifikaziorik gabe, hainbat lantegitan ikusi zenean horren beharra. Langileentzako euskalduntze eta alfabetatze eskolak lantegian bertan antolatzen hasi zirenean, sindikatuak lan hitzarmenetan euskararekin lotutako lehen puntuak sartzen hasi zirenean, errotulazioan eta paisaia euskara sartzen hasi zirenean... Gehiegi planifikatu gabe eta modu espontaneoan».

2020an, adibidez, ikerketa bat egin zuten «garai hartan euskara planak martxan jarri zituzten enpresek zer motibazio zituzten, zer diskurtso, zer baliotan oinarritzen ziren» ikusteko. «Ondorio mordoa atera genituen, baina bereziki

Ezkerretik eskuinera, Elias Zumalde (Emun), Txarles Ranero (Ahize), Aitziber Salaberria (Elhuyar) eta Eider Iturricastillo (Artez).
Jon URBE | FOKU



aipatzekoa da orduan hizkuntza bakarra nagusitzen zela, gaztelania. Euskara maila informalean erabiltzen zen, ez zeukan prestigiorik. Gainera, plan horiek oso behetik gora aplikatu ziren. Langileen indar eta borondatetik abiatuta. Hor hasi ziren sortzen lehen euskara batzordeak, eta lidergoak oso garrantzitsuak izan ziren. Hainbat arduradunen papera oso garrantzitsua izan zen, batzorde horietan hartzen ziren erabakiak aplikatzerako orduan. Eta pisu handia izan zuen alfabetatzeak. Lantegietan ikastaro espezifikoak antolatzeari garrantzi handia eman zitzaion. Ia dena zegoen egiteko eta, horregatik, egiten zen gutxi hori ikusi egiten zen; hori oso motibagarria zen aurrera egiten jarraitzeko».

Harik eta, une batean, euskalduntze prozesu hori egituratzeko beharra ikusi zen arte. «Duela 30 bat urte espontaneotasun horri heldu eta gauzak modu planifikatuagoan egiten hasi ziren lantegietan. Gaur mahai honetan gaude-nok hortik abiatu ginen. Metodologia sortu, planifikazioak egin, hizkuntzaren diagnostikoak egin... Horrela diseinatu ziren lehenengo euskara planak eta horiek garatzen hasi ginen. Ibilbide horretan hainbat aholkulari ibili gara lanean. Lantokietan ezin bestekoa izan da laguntza lana, eta urteekin metodologia fintzen joan gara, momentuko beharretara egokitzen, enpresek behar zutena ikasten, probatzen...».

Salaberriak aipatu zuenez, gainera, beraien lana euskaratik haratago doa gaur egun. «Enpresak egokitu diren heinean gu ere egokitu egin gara. Euskara planak konplexuagoak egin ahala gu ere molda-



Langile bat, Fagor Ederlan enpresan. Errotulazioak euskaraz daudela ikus daiteke.
Andoni CANELLADA | FOKU

tzen ari gara. Eta saiatu gara enpresei erreminta desberdinak eskaintzen eta beste ikuspegi batzuk txertatzen: berdintasunean, partaidetzan, justizia sozialean... Azkenean, enpresek martxan jartzen dituzten euskara planak eraldaketa prozesuak dira. Pertsonak daude erdigunean eta eraldaketa da helburua. Gaur egun prozesu oso sakonak direla esan dezakegu»

Maila instituzionalean ere hainbat erakunderekiko elkar-lana garatzen joan dira. «Aholkularitza bakoitzak bere egiteko moduak ditu, bere proiektua, bere erronkak, bere lan ildoak... Baina 2010. urte inguruan Kontseiluko lan munduko sektoreko mahaia sortu zen. Hor elkartu ginen denok.

«Nola hasi zen hau? Garai bateko borondate, indar eta gogoari esker. Planifikaziorik gabe, hainbat lantegitan ikusi zenean horren beharra», aipatu zuen Aitziber Salaberriak

«Metodologia sortu, planifikazioak egin, hizkuntzaren diagnostikoak egin... Horrela diseinatu ziren lehenengo euskara planak», gaineratu zuen aholkularien lana azaltzeko

Kontseiluko zuzendaritzan egoteaz gain, sektoreko lan mahai horretan batu ginen. Zertarako? Bageneukalako helburu bat: arlo sozioekonomikoan euskara sustatzea. Eta helburu horri jarraikiz hausnarketa egin, egoera nola zegoen aztertu, eta 2013an lan mundua euskalduntzeko konferentzia dokumentua sortu genuen. Hortik abiatuz, gaur egun mahai horretan jarraitzen dugu, hausnarketa egiteko, partekatze, administrazioarekin solaskidetza bateratu bat izateko, amets egiteko, eta elkarrekin egiteko dugu bidea garatzeko».

Onartu zuenez, bidea emankorra izan da, baina datozen erronkak ez dira makalak. «Guk baditugu enpresak gurekin aspalditik lanean ari direnak, duela urte asko euskara planak garatzen hasi zirenak, eta azken urte hauetan urrats oso garrantzitsuak egin dituztenak. Baina enpresak aldatzen doaz, eta erronka berriei gain, belaunaldi berriak datoz enpresetara, arduradun berriak. Horregatik izan zen garrantzitsua duela urte batzuetako motibazioak gogoratzea, enpresa askotan erronka

nagusia atzerapausorik ez egitea delako. Orain arte egin-dakoarekin jarraitu eta sistematizatzea».

EGOERA ZENBAKIETAN

Hurbilpen historiko hori egin ostean, Eider Iturricastillok aholkularitza erakundeek gaur egun egiten duten lanaren erradiografia bat aurkeztu zuen, eguneroko lan hori zenbaki eta estatistiketara eramanez. Aipatu zuenez, 1.700 unitate edo establezimendutara ailegatzen dira, 120 bat enpresetara, eta 60.000 langilerengan eragiten dute gaur egun lanean dabil-tzan 54 aholkulariek.

«Tamainari begiratzen badiogu, enpresa txikiak dira gehienak. Krisiak lan baldintzen prekarizazioa ekarri du, eta hizkuntza planen lehentasunik eza. Belaunaldi berriek bestelako atxikimendua dute hizkuntzekin. Hizkuntza planak martxan jartzeko baliabideak behar direnez, bideragarriagoa izaten da enpresa handientzat», azaldu zuen Artez-eko kideak.

Dirulaguntzei dagokienez, egoera oso desberdina da lurraldearen arabera. «Ipar Euskal Herrian ez dago inolako sustapen neurririk. Nafarroan laguntzak egon izan dira tarteka, baina modu oso sinbolikoan. EAE mailakoak dira laguntza gehienak. Aldez aurretik neurri solte batzuk hartu ziren arren, 2006an jarri zen martxan egungo eredua. Urtero 160 bat enpresak jasotzen dute laguntzaren bat», jakinarazi zuen Iturricastillok.

Gipuzkoako enpresak dira gehienak, %60 inguru, «eta joera hori denboran mantendu egiten da»; Bizkaikoak %33 dira eta %7, Arabakoak. Eskualdeka Bilbo, Donostialde eta Deba bailarakoak dira enpresa gehienak. Enpresa sektoreei



begiratuta, apenas dagoen lehen sektoreko enpresarik. «2008ra arte industria arloa zen nagusi, baina beheranzko joera erakutsi du, eta gaur egun heren bat da sektore industrialekoa eta bi heren inguru, zerbitzuen sektorekoa. Asko kooperatibak dira edo administrazioarekin loturaren bat daukatenak. Alde horretatik espektroa zabaldu beharra dago», aipatu zuen.

Ziurtagiriei begiratzuz gero, Iturricastillok gogoratu zuen Bai Euskarari ziurtagiria 2000 urtean jarri zela martxan Hegoaldean eta 2001ean zabaldu zela Ipar Euskal Herrira. «Erreferentea da eta zazpi lurraldeetan daukagu. Gaur egun 1.272 ziurtagiri ditugu eta prozesuan parte hartzen dutenak gehiago dira. Ondoren sortu zen Bikain, 2008. urtean, Eusko Jaur-laritzaren bultzadarekin, eta hor 491 entitate daude».

Eta kopuru hutsetatik hara- tago, enpresei hizkuntzen ku- deaketaren garrantzia ikusa- raztea izaten omen da gaur

egun arazo nagusietako bat. «Beharra sentitzen ez duten enpresak motibatzea ere ga- rrantzitsua da. Sustapen lana handia izanda ere kosta egiten da enpresek behar hori senti- tzea. Sarritan entzuten ditu- gun erantzunak dira hauek: 'ingelesez funtzionatzen du- gu', 'denok dakigu gaztelania eta ez dugu euskararen beha- rrik'... Horrelakoak ohikoa dira eta horri ere buelta bat eman behar diogu. Derrigortasunik ez dago eta horrek zaildu egi- ten du edozein aurrerapauso egitea», aurreratu zuen gero sakonduko zen ideia.

NORA HELDU NAHI DUGU?

Eta egungo egoera kezkaga- rriaren bestaldean, Txarles Ra- nerok etorkizuneko paisaia ideala marraztu zuen. Kontsei- luarekin eta Bai Euskararekin batera egindako «etorkizunera begiratzeko ariketa baikor ba- ten» emaitza. Politegia, agian, sinesgarria izateko, baina ba- liagarria izan daitekeen arike- ta, jarraitu beharreko norabi- dea ongi zehazteko.

Tolosako Kultur Etxean
ekainaren 13an egindako
hitzaldiaren une bat.
Jon URBE | FOKU

«Hogeita hamar urte barru- ko ikuspegi positibo bat, amets bat, irudikatzeko arike- ta egin genuen. Etorkizuneko errealtate hori jasotzen ahale- gindu ginen hainbat arlo eta faktore kontuan hartuta: lege edo araugintza neurriak, hez- kuntza arlokoak, demografiak izango lukeen pisua eta ekarri- ko duen errealtate berri hori... Sektorearen egoera zein izan- go litzatekeen, baita zer gober- nantza eredu beharko genu- keen ere», azaldu zuen.

Ametsetako egoera ideal ho- rretan ezagutzaren unibertsali- zazioa lortuta egongo litzateke, euskarak prestigioa izango lu- ke, etorkinentzat euskalduntze plan pertsonalizatuak egingo lirateke, eta enpresetako ardu- radun berriak euskaldunak izango lirateke. Euskararekiko atxikimendu zabala legoke, eta sustapena bultzatuko litzateke lan munduan. Hezkuntzan so- ziolinguistikak dagokion lekua hartuko luke, eta ikasketa de- nak euskaraz lirateke. Lantokie- tan ere aldeko diskurtsoa lego- ke, araudi bidezko betekizunak

leudeke, hizkuntza klausulak ezarrita, hobari fiskalekin, eta jarraipen zorrotza egingo li- tzaieke. Gainera, harrera pla- nak leudeke eta sustapena egingo litzateke. Aholkularitza sektorea ahaldunduta legoke, egonkortuta, aholkulari belau- naldi berria legoke, euskara planen kopurua eta horiek au- rrera eramateko baliabideak hi- rukoiztu egingo lirateke...

Zerrenda nahi beste luzatu daiteke, baina aipatutakoa nahikoa da konturatzeko errea- litate ideal horretatik zein urrun gauden une honetan. «Amets horrek erakusten digu etorkizuna erronkaz beteta da- goela, eta era berean aukera handiak ere eskaintzen dituela. Bistakoa da aurkeztu dugun ar- gazki horrek bide labur eta bide luzeko eginkizunak plante- atzen dituela. Jauzi kualitatibo eta kuantitatibo nabarmena egin beharko dugu eta, tamai- nako apustu politiko sendoa- rin batera, eragileen arteko ar- tikulazioa josten joan beharko dugu. Gu elkarlanerako prest gaude, eta beharrezkoak izango diren aldaketak egiteko prest. Norabidea argi dugu, eta beraz, aldeko haizea beharko dugu orain. Seneka filosofo zaharrak esaten zuen bezala, 'aldeko hai- zea beti lagun, nora joan dakie- narentzat', itxi zuen Txarles Ranerok bere hitzartzea.

ESTRATEGIA BERRIAK

Egungo egoeratik ametsetako errealtate horretara heltzeko bidea zein izan daitekeen az- tertzea Elias Zumalderi egoki- tu zitzaion. Argi dago ez dela egun batetik besterako kontua izango, ezta eragile batek bere kabuz lor dezakeena ere, baina bidean aurrera egiteko garran- tzitsuak izango diren zenbait gako aipatu zituen Emun-eko ordezkariak.

Lehen kolpean dozena erdi zerrendatu zituen: orain arte egindako bidean sakontzea – «metodologietan eta abarretan asko egin dugu, esperientzia eta praktika bat metatu dugu, eta horri bide eman behar diogu»–; estrategia berriak lantzea –«orain arte egindakoarekin lortu dugu lortu duguna, zerbait aldatu beharko dugu beste emaitza batzuk lortu nahi baditugu»–; aholkularitza ahalduntzea –«uste dugu gure lana oso garrantzitsua izango dela amets egin dugun horretara iritsi behar badugu»; eragileen arteko saretzea –«ikuspegi sistemiko batekin egin behar da lan eta saretze horrek oinarriak jarri behar ditu»–; baliabideak handitzea –«baliabide asko behar dira eta horiek jarri egin behar dira duintasunez eta sendo lan egiteko»–, eta sustapena areagotzea –«euskara planak sustatu behar dira enpresetan eta ezin da borondatean oinarritu soilik».

Azken puntu horretan gehixeago luzatu zen Elias Zumalde: «Uste dugu beste urrats batzuk egin behar direla. Eta urrats egite horietan, zergatik ez begiratu genero berdintasunean egiten denari? Horrek ekarri du enpresa askok genero planak egitea. Gero eztabaida egongo da horrek zer emaitza duen edo ez duen, baina gutxienez, aukera bat zabaldu da hori lantzeko, eta enpresa guztiek daukate konpromiso bat bete beharra. Iruditzen zaiagu hori ere beharrezkoa dela».

Bestalde, hizkuntza kudeaketari enpresa munduan merzei duen garrantzia eman behar zaiola defendatu zuen. «Hizkuntza kudeatu beharraz konturatu behar dira enpresak. Onurak dakarzukiela. Hizkuntza kudeatzeak onura eko-

nomikoak ere badituela. Enpresaren dinamikarako baliagarria eta onuragarria dela. Eskubide diskurtsoa badaukagu, hori ere indartu behar dugu, baina uste dugu diskurtsoa lehiakortasunarekin eta kalitatearekin ere lotu behar dela».

Eta aurrean egin duten 'Gehi' izeneko ikerketaren emaitzak jarri zituen adibidetzat. «Abiapuntuan aholkularion intuizio bat zegoen eta hori egiaztatu nahi izan dugu. Intuizio hori da euskara planek, euskara arloan ez ezik, beste arlo askotan ere laguntzen dietela enpresei. Ekarpina egiten dietela. Horretarako lau enpresa hartu ditugu eta bertako pertsonekin prozesu bat garatu dugu. Enpresa horiek urte luzez euskara planak izan dituzte, eta ondorioetara iritsi garenean gure intuizioak bete egiten direla ikusi dugu. Esan digute aldagai askotan egin dutela hobera. Zehazki 14 aldagaitan eragin dute euskara planek. Nagusiki, langileen parte-hartzean –aktibatu egiten duela–, elkarlanean, langileen ongizate edo gogobetetzean, kolektibotasun edo ludikotasunean, eta gizarte erantzukizunean. Euskara garatzeak baditu beste onura batzuk».

ARDURADUNEN INPLIKAZIOA

Zentzu horretan, bada garaia talentuaren eta euskararen arteko kontraktasun diskurtsoarekin amaitzeko, askotan justu kontrakoa gertatzen delako. «Badirudi talentua erakartzeko euskara kalte dela, diskurtso hori zabaldu samar dago. Ikerketa honetan ikusi da euskara aldeko faktore bat izan daitekeela talentua erakartzeko. Pertsonak euskaraz lan egin nahi izatea, pertsona horien gogobetetzea ekarriko luke eta egonkortzea ere bai».

«Euskara planak sustatu behar dira enpresetan eta ezin da borondatean oinarritu soilik», adierazi zuen Elias Zumaldek, genero berdintasunarekin egindakoa eredutzat jarritz

«Eskubide diskurtsoa badaukagu, hori ere indartu behar dugu, baina uste dugu diskurtsoa lehiakortasunarekin eta kalitatearekin ere lotu behar dela», gaineratu zuen Zumaldek

Bertaratu zirenek lan mundua euskalduntzeko gakoak diren hainbat arlotako ikuspegiak ezagutu ahal izan zituzten.
Jon URBE | FOKU

Hori dena gauzatzeko, enpresetako arduradunen inplikazioa ezinbestekoa da. Elias Zumaldek bi gako aipatu zituen arlo horretan. Batetik, hezkuntzan oinarrituko ezagutza soziolinguistikoko bat txertatzea. «Gaur egun enpresetara etortzen diren zuzendari, kudeatzaile eta abarrek ia ez dute oinarri soziolinguistikorik. Ez dakite zergatik gertatzen den hizkuntza baten galera, ez dakite zer egin behar den hori berreskuratzeko. Hor badago garatu beharreko elementu inportante bat». Eta bestetik, euskara planetan enpresako atal guztietako jendea inplika-

tzea. «Ez izatea euskara koordinatzailearen edo euskara batzordearen egiteko soila, dinamika osatuagoa izatea».

Sustapenaren ideian sakonduz, «borondatearen eta betebeharraren artean oreka bat» bilatzearen alde agertu zen Zumalde. «Hizkuntza klausulak ezarri behar dira, uste dugu administrazioak sustatzaile izatera pasatu behar duela bere osotasunean, eta aztertu behar da ia genero planetan erabiltzen den logika hizkuntza planetan ere aplikatu daitekeen. Dirulaguntza sistema bakarra eta hurbila behar da. Zergak, pizgarriak... Eta beste gakoetako bat enpresa haztegiak zaintzea izango da. Euskal Herrian egunero sortzen dira hainbat enpresa eta horra begiratu behar dugu, sortzen diren une horretan eragiteko».

Azkenik, hori dena modu ordenatuan egiteko, «itun sozioekonomikoaren beharra» nabarmendu zuen adituak, «ikuspegi bateratua izatea, argia eta adostua, sekulako aurrerapausoa izango litzatekeelako».

